

Zerbitzuak, informazioa jasotzetik hasi eta kirol erakundeen erregistrora eramateko bidea betetzen du: hau da, Gipuzkoako kirol federazio batek bete behar dituen kontabilitate eta zerga betebeharrak:

- ✓ Aholkularitza iraunkorra.
- ✓ Kontabilitate prestaketa eta eguneraketa.
- ✓ Kontabilitate-liburu ofizialen prestaketa eta mantenua
- ✓ Aldian aldiko balantzeak eta emaitza-kontuak.
- ✓ Amortizazioak eta ekitaldi bukaerako kontu-garbiketak.
- ✓ Diru-hornidurak egokitu.
- ✓ Urteko kontuak prestatu eta Kirol elkarteen Erroldan aurkeztu.
- ✓ Aldian aldiko zerga-egutegiari buruzko informazioa.
- ✓ BEZ inprimakia prestatu (beharrezkoa balitz) eta aurrez adierazitako banketxean aurkeztu.
- ✓ Hirugarrenekin egindako eragiketen urteko aitorpenak prestatu eta aurrez adierazitako aurrezki-kutxa edo banketxean aurkeztu.
- ✓ Zergen urteko laburpenak.
- ✓ Zentsuko alta, baja eta aldaketak.
- ✓ Sozietateen zerga prestatu eta aurrez adierazitako banketxean aurkeztu.

Sinatuko den zerbitzu kontratua bi aldeetakoren batek berariaz uko egin arte indarrean izango da, betiere ordainketak aurrez ezarritako epeetan gauzatzen badira.

Bezeroak, bideraketa hauek Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasunataria SARE sistemaren bitartez egiteko ordezkari emango dio AFEDEGIri.

Kontratuaren zenbatekoa urtero berrikusia izango da, bezeroaren behar eta ezaugarri puntualetara moldatuz. Eskainitako zerbitzuen tarifak bigarren hiruhilekoan jakinarazi beharko ditu AFEDEGIk. Urteko faktura, berriz, uztaila bukaeran bidaliko da.

Kopurua bi zatitan kobratuko da. Lehena, irailaren erdi aldera, eta bigarrena datorren urteko otsailaren erdi aldera.